



Bruno
Etxenike
Garmendia

1819-1893

BIDeGILEAK

Egilea:

Rosa Miren Pagola



BRUNO ETXENIKE GARMENDIA

(1819-1893)

Zinezko jaun euskaltzale

GIZARTEAREN OROIMENEAN ATZENDUA

Ehun urte dira pasatuxeak Bruno Etxenike zendu zela eta gaurgero ia ezabatuak dira jendeen oroitzatik hark bere bizitzan eginitako urratsen aztarnak. Jaio zen herrian, Urdazubin, eta haren bizitza bereziki loturik ageri den herrian, Elizondon, oraindik hauteman daitezke oihartzun gisakoak bere garaian ospea izan eta izen bat erdie-tsi zuen gizakumearenak. Nolanahi ere, euskaltzaleek, euskara deskribatzen aritu direnek batez ere, aipatu izan dute, baina

haren bizitzako zertzeladei buruz iturri bertsuez baliatu dira gehienbat eta, zenbaitetan, jaso izan diren datuak ez dira beti hain fidagarriak izan. Ezin izango dugu, beraz, haren bizitzako xehetasunak agertzen aunitz luzatu, baina bai, ordea, azaldu ahal izanen dugu euskararen zenbait aldaerari egin zion ekarria eta haren lanaren garrantzia. Egia da Etxenikek euskarara egin zituen testuen itzulpenak eta hizkuntzarekiko beste lanak Bonaparte Printzearen eraginez eta haren laguntzetan egin zituela, baina, bide batez, Bonaparteren argi biziak, neurri batean, itzalpean utzi du



Elizondon gelditzen da, gutxi bada ere,
Brunoren oroitza

laguntzailearen izena. Hala eta guztiz ere, Etxeniketik ongi irabazia du *Bidegileak* bildumak jaso dezan bere izena, onartuz bada ere ikertzaile handi haren gerizpean garatu zela bere euskal lana eta nortasuna.

URDAZUBIKO SEMEA

Lapurdikoko muga ondoan, Zugarramurdi, Ainhoa eta Sara herriak mugakide dituela, Nafarroako Urdazubi dago, lauren artean Xareta eskualdea osatzen dutelarik. Iruñeko merindadekoa da eta hiriburutik 80 kilometrorara dago. Urdazubi ez zen berez herri bat, baina Erdi Aroan premontratarren monasterio bat sortu zen aurretik erromesen ospitalea izan zen eraikun-



Urdazubi, Etxenikereren jaioterria, Lapurdiko mugan dago

tzan, eta haren inguru eta menean sortu zen gizagune bat. Honek, zenbait liskar eta istilu izan ondoren monasterioarekin, XVIII. mendeko bigarren erdian lortu zuen haren mendekotasunetik askatu eta hiribildu bihurtzea.

Urdazubi eta inguru guztia da atsegina ikusteko, baketsua, naturarekin bat egiten laguntzen duena. Ur garbi, oxigenatu eta gardeneko Ugarana erreka, begien pozgarri diren amuarrain distiratsuz hornitua, gurutzatzen du herri-kaskoa. Bost auzok osatzen dute herria: Alkerdi, Dantxaria, Landibar, Leorlatz eta Tejeria. Ibilaldi politak ditu aukeran, nahiz basabidez egin daitezkeenak, nahiz inguruko mendietara, nahiz Zugarramurdi, Ainhoa eta Sara-ra. Ez duzu toki eta herri xarmantagorik



Xareta Lapurdi eta Nafarroako herriez osatutako eskualdea

aurkituko. Baditu kobak, Ikaburukoak, esaterako; badu historia; badira kontu huts ez diren elezaharrak; eta badu euskara atsegin eta bizia, inguru horren ezaugarriak liluragarriena. Gainera, Urdazubin sortu zen euskal idazlerik aipagarriena, gure hizkuntzaren ohore dena, Axular. Euskal kulturari begiramenik dion orok ezagutzen du Axular, izenez behinik behin, eta Axularren bidez haren jaioterria, Urdazubi —erdaraz Urdax—, ere bai.

Urdazubin, bada, jaio zen Bruno Etxenike 1819ko uztailearen 9an. Leorlatz auzoko Karakoetxea etxalde ederra izan zuen jaiotetxe. Axularren auzo berekoa da, beraz, urte aunitz badira ere biek bizi izan zituztenen artean. Herriko Done Salbatore monasterioko elizan bataiatu zuten Bruno Eugenio Maria izena ipiniz. Aita, Juan Bautista Echenique, urdazubiarra zen, Juan de Echenique eta Maria de Irigoyen bere gurasoak bezala. Ama, beratarra,



Done Salbatore Erdi Arotik monasterio izandakoa da

Maria Lorenza Garmendia, eta amaren aldetiko aiton-amonak, Martin Esteban Garmendia eta Maria Francisca Zubigaray izan zituen. Orain ez da etxeniketarren familiakorik han, baina Karakoetxea etxeak ederra izaten jarraitzen du eta, gainera, edonork goza dezake bertan, landetxe zozagarria baita gaur egun han egunak pasa nahi dituen orori irekia. Bada beste etxe eder bat, hau Monasterioaren plazan bertan kokatua, Indianobaita deitzen dena, beste etxeniketar batek eraikia, Brunoren osabak hain zuzen, Ameriketara ibilia eta Brunok zortzi urte baino ez zituenean eraiki zuena. Hor ere lo egin daiteke eta ongi jan ere bai, egun ostatua baita.

4



Urdazubiko armarriak monasterioaren aztarnak gordetzen ditu

IKASKETAK ETA FORMAZIOA

Lehenengo ikasketak Urdazubin bertan egingo zituen dudarik gabe. Baina, gero, Iparraldeko Larresoroko ikastetxera bidali zuen aitak. Ikastetxe hori seminarioa zen, baina 1833an Frantziako gobernuak erlijiosoen ikastetxeak kendu egin zituzenez, Larresorokoa ikastetxe zibil bihurtu zen. Duvoisin Kapitainak dioenez, bere anaia apaiza, Cesar, izan zen urte horietan irakasle 1845eraino. Entzute handiko ikastetxea zen Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo ere bai. Ikasketa ezberdi-



Axular baserria

nak eskaintzen zituen, beti ere formazio humanistiko hagitz aberatsaz batera.

Etxenikek 14 bat urte izango zituenez al-daketa hori gertatu zenean, bistakoa da heziketa eta ikasketa urterik hoberenak hantxe egingo zituela. Matematikak ikasi omen zituen, formazio humanistikoaz gain eta, bide batez, frantsesa ere guztiz menderatuz, noski. Eta euskarari dagokionez, Larresoroko seminarioan aunitz zaindu eta lantzen zen euskara, eta, Jean Duvoisinek bere aniaz dioenetik atera

daitekeenez, hori ez zen galdu, alderantziz baizik, euskararen erregistro landua bizkortu egin baitzen. Euskararen erabileradebeku formala 1846an ezarri zen.

Etxenikereren formazio onaren lekukorik adierazgarriena bere lana da. Ez daiteke Bibliako itzulpenak egiten edozein sasile-tradu jarri. Egin zituen itzulpenak onak izan ziren, eta ezin hobea Bonaparteri eskaini zion hizkuntzarekiko laguntza, honak hainbeste aldiz laguntza zientifikotzat aitortzen duena. Brunori ere, Larresoroko



Karakoetxean jaio zen Bruno



Egun, Brunoren sortetxea landetxe bihurtu da

giroaren eraginez, gero agertzen duen euskararekiko maitasuna eta atxikimendua sortu eta indartu egingo zitzaion. Bestalde, Larresoron egingo zuen Iparraldean kultura munduan mugitzen ziren hainbeste jaunen ezagutza eta adiskidegoa, Antoine d'Abbadieren anaia gaztearena Charlesekin, adibidez.

FAMILIA ETA BIZILEKUAK

Birritan ezkondu zen Bruno. Lehenengo emaztea arabarra zen, Ruiz de Alegria deiturakoa. Ezkontza honetatik bi seme-alaba izan zituen: Mikaela, ezkongabe gelditu zena, eta Joakin. Bigarren emaztea, berriz, nafarra izan zen, Prudencia Meoki izenekoa. Hiru seme izan zituzten, Bruno, Salvador eta Saturnino. Hirurek erdietsi zuten gizartean goi-maila, nola lanbidez nola ezkontzaz. Lehenengo biak militarrek izan ziren eta hirugarrena, notarioa. Bruno Etxenike Meoki Maria de Iriarterekin ezkondu zen, Iriarte jeneral ospetsuaren alaba zena, hain zuzen. Hauek bi seme izan zituzten, bata, Fernando, Errioxako nobleziarekin lotu zen, Valdeoserako leinu-etxeko Maria Natividad Saenzekin ezkondu baitzen; bestea, Salvador, ez zen inoiz ezkondu. Brunoren bigarren semea, Salvador Etxenike Meoki, Gongorako Markesaren alabarekin ezkondu zen, Juana de Ezpeleta izenekoa, eta ez zuten umerik izan. Hirugarrena, eta azkena, Saturnino Etxenike Meoki, Elizondoko alaba zen Amalia Osakarrekin ezkondu eta seme bat izan zuten, Jose

Maria. Hau ere andre noble batekin ezkondu zen, Atarfe markesaren alaba eta Ansola dukearen arreba zenarekin. Nikolas Alzola Gerediaga euskal idazleak idatzi zuenez, Brunoren ondorengoa ugaria izan zen eta Espainiako goi-nobleziarekin lotua zegoen. Eta, iturri berak dioenez, horietako batzuek Bruno aitona zaharra aunitz maite zuten eta Alzola bera, euskarra estima handian zuen Brunoren biloba bati esker, euskaltzaletu omen zen.

Ez dakigu Bruno noiz joan zen Elizondora bizitzera; edonola ere, gizon egina zelarrik. Agian, ezkondu egin zen Elizondora. Harrezkero, hiru tokitan bizi izan zela gauza segurutzat har daiteke: Elizondon, Gasteizen eta Iruñean. Baina, dirudienez, Elizondoko etxea zuen egonlekurik atseginena, baita atsedean hartzeko eta lagunekin egoteko txoko bezala ere. Ez dakigu non bizi izan zen Gasteizen; eta Iruñean ere ez ziurtasun osoz, baina Valentzia pasealekua —gaur egun, Sarasate— ematen da helbide bezala hil zeneko eskelan, eta Iruñean izan zen hobiratua.

Elizondon Datuegaraia deitzen den etxea berea zen eta han bizi zen. Herriko erdi-



Baztango hainbat etxe bezala, Brunoren jaiotetxea blasoiduna da



Larresoron egin zituen ikasketak

gunetik kanpo gelditzen den Datue auzoan kokatzen da. Erdi Arotik dokumentatzen den Datue leinu-etxearen alde batera eta bestera gaur egun bi etxe daude: Datuegaraia eta Datuebehera. Datuegaraia etxe



Datuegaraian bizi izan zen

handi eta ederra da, baina ez da jauregia; Datue da jauregia eta leinu-kabua. Esan bezala, Etxenike Datuegaraian bizi izan zen. Ez dakigu noiz arte izan zen familia-rena. Egungo jabea lekaimen kongregazio bat da. Oraindik gordetzen du leku lasai, eder eta baketsuaren xarma. Ez da harritzekoa hara joatea atsegin izatea. Edonola ere, printzearen gutunetatik atara daitekeenez, 1862tik aitzina Gasteizen bizi zen, Elizondon egonaldi luzeak egingen bazituen ere.

GASTEIZEN

Gasteizen bizi izan zela gauza ziurra da. Noiztik, ordea, ez dakigu zehazki, eta noiz arte ere ez. Bonapartek Etxenike Elizondoko bezala eta han bizi zelarik ezagutu zuela dirudi 1856ko abuztuan, ia tupustean eskatu baitzion Elizondoko hizkerara *San Mateoren Ebanjelioaren* itzulpena egitea. Ondorengo gutunek ere Elizondon bizi zela iradokitzen dute. Eta 1862ko apirilaren lauan Bonapartek honako hau esaten dio: «eta orain Gastei-



Datue jauregiaren babesean sortu ziren Datuegaraia eta Datuebehera

zen bizi zarenez gero». Honek ez du esan nahi, ezinbestez, aurretik ere han bizi ez zenik, ez eta Etxenike aldatu berria zenik ere, baina interpretaziorik onargarriena izan liteke aldaketa ez zela hain aspaldikoa izanen; beharbada, iragan urtekoa edo. Brunoren lehen emaztea arabarra zen, agian Gasteizkoa, baina hori ere ez da aski froga Bruno Gasteizera ezkondu zela pentsarazteko. Ziurrenez Elizondora ezkonduko zen, eta han haziko ziren emazte horrekin izan zituen haurrak, mu-

tila eta neska, Gasteizera aldatu ziren arte, Etxenikek 42 bat urte izango zituelarik. Horrela, beharbada, ulergarriago gertatzen da alaba Elizondon zendu izana, Gasteizen hazia izan balitz baino.

Nolanahi ere, ez zuen Elizondoko etxea utzi. Maiz izaten zen han, hara idazten baitzion usu Bonapartek, batez ere uda aldean. 1864ko irailaren zazpian honela zioen: «Gutuna igortzea iragan hilaren 30etik atzeratu dut gaur arte, zu Baionatik



Datueren jatorria, ikusten denez, aspaldikoa da

eta Elizondotik Gasteizera itzuli ondoren iritsi dakizula nire gutuna nahi baitut». Ba ote zuen Baionan ere zerbait? 1866ko otsailean ere Gasteizera idatzi zion.

Bada beste aipamen bat Iruñeko Nafarroako Euskarazko Elkargoak argitaratu zuen *Revista Euskarán*. Lehenengo zenbakia 1878ko urtarrilean agertu zen, eta bertan Elkargoko hogeitahogei bazkideen zerrenda eskaintzen da haietako bakoitzari zegokion bizilekuaz batera, eta Etxenikerena Gasteiz da. Lekukotasun hau berme handikoa da, Etxenike



Datue jauregiak, leinu-kabua izaki, bere armarri propioa du

hagitz ezaguna baitzen Elkargoko kide sortzaileentzat.

Edonola ere, hamasei bat urte gutxienez bizi izan zen Gasteizen. Enpresaren batean sartua ere egon zitekeen, ehun-industria motakoren batean edo, horien inguruko arazoren batzuei buruz galderak egiten baitizkio Bonaparteri Gasteiztik Londresera.



Langile prestu

Luis Luziano Bonaparteren eskutik sartu zen Bruno euskararen historian

BONAPARTE PRINTZEAREN LAGUNTZAILE

Luis Luziano Bonaparte euskaltzale argiari buruz hemen mintzatu gabe ezin gaitzke gelditu. Izan ere, Bruno Etxenike euskararen historian sartu bada, printzearen gerizpean eta haren lankide bezala izan da. Ezaguna den bezala, Luis Luzianok euskarari buruzko lan handi eta bereziki ona egin zuen. Lehena izan zen aditzari buruzko lan monografikoa egiten eta argitaratzen. Euskalki guztietan testuak idatzarazi zituen eta haiek argitaratzen hasi zen.


Baina, oroz gain garrantzitsuena, Bonapartek euskal dialektologiari egin zion

ekarria izan zen, berak egin baitzuen aurrenekoz euskalkien sailkapen sistematiko eta zientifikoa. Horren ondorioz, Euskal Herriko zazpi lurraldeetan garai hartan mintzatzen ziren zortzi euskalkiak kokatu zituen bakoitza bere eremuan, beraien azpieuskalkiak eta hauen aldaerak ere zehazki markatuz. Horrela, ordura arte zatitua eta nahasia agertzen zena, ordenatua eta argi utzi zuen. Eta emaitzarik preziatuena berak prestatu eta editatu zuen euskararen hizkuntza-mapa izan zen, lehenengoa eta biziki ongi egina. Azkenik, ez haatik garrantzi murriztagoz, Bonapartek euskararekiko kezka eta interesa zabaldu zituen munduan eta haren duintasun eta

edertasunaren sentipena garatu zuen garai hartako euskaldunen bihotzetan. Lan erraldoi hori Bruno Etxenike gabe ere egin ahal izango zuen, noski, gizon tematia baitzen, baina ziurrenez ez hain ongi eta hori printzeak berak ere garbi ikusten zuen. Edonola ere, Etxenike funtsezko laguntzaile izan zuen.

1856ko uztailaren 16an, printzeak Euskal Herrira egin zuen aurreneko bidaiari, Baionan izan zuen lehen egonaldia, eta handik abuztuaren 4an d'Abbadieri idatzi zion gutun batean, Nafarroako euskara eta hango hizkerak ongi ezagutzeko nafar euskaldunekin harremanetan jartzeko gogoia zuela adierazi zion. Hiru egunen buruan erantzun zion d'Abbadiek esanez bere anaia Charlesek baztandar egoki bat ezagutzen zuela, asmotan zituen aferetarako ezin hobea izango zuena.

Antoine eta Charles d'Abbadie anaiak Bonaparterekin abuztuaren 12an elkartu ziren Charlesena zen Baigorriko Etxauz jauregian. Ospatzen zituzten biltzar literarioen aitzakiaz bildu ziren bertan, eta hantxe ezagutu zuten elkar Bonapartek eta Etxenikek. Dirudienez, ongi kausitu ziren




San Mateoren Ebanjelioren itzulpena izan zen Bonaparteren lehen enkargua

elkarri berehala eta harreman ona izan zuten hasieratik. Printzea ere ez zegoen denbora galtzeko bezala eta egun berean egin zion lehenengo enkargua: *San Mateoren Ebanjelioa* euskaratzea Elizondoko hizkerara, baztanera ezagutu nahi baitzuen. Horrela hasi zen, bada, luzaroan iraungo zuen bien arteko adiskidegoa, eta hagitz emankorra izango zen lankidetzeta, hamahiru urtetakoa gutxienez ezagutzen ditugun Bonapartek bidalitako gutunen arabera.

ETXENIKE, IKERKETA- -LANKIDE

Arin ohartu zen Bonaparte aurrean zuen gizasemearen zolitasunaz eta zein laguntzaile aparta izan zitekeen Etxenike. Bestalde, ongi prestatua zegoen eta frantsesa ere erabat menderatzen zuen Bonaparteren xede eta arauz arazorik gabe jabetzeko. Beraz, itzulpenez gain, berez etorri ziren gainerako guztiak: hizkerak jasotzeko herrien mintzairi buruzko galderak; erabilera-zalantzak argitzeko laguntzak; nola esaten da hau edo hura, zein ahoskera hartzen du azken bokalak hemengo edo hango hizkeretan, zein adizki-forma erabiltzen da eta, oro har, edozein ikerketa-lanetan bezala, etengabe sortu ohi diren hainbeste zertzeladaren garbitu beharra, kolaboratzaile berriak bilatzetik hasita.


Bruno izan zen printzearen laguntzailerik fin eta onena, eta honek horrela aitortzen zion aldiro-aldiro gutunetan. Dena den, aski izanen dira 1862ko maiatzaren 28an idatzi zizkion hitz hauek: «Beraz, zientziak asko zor izanen dizu zuri nahiz onesten nahiz gaitzesten baduzu nik finkatu uste



Euskalkien mapa egiteko, Brunoren laguntza ez zen txikia izan

dudan iritzia, agian oker, agian zuzen. Ez zaitez gogaitu, otoi, ez baitut sekula Euskal Herrian inor aurkituko zu bezain ongi nire helburuez jabetuko denik. Zuk uzten banauzu lan honenak egin du; kontatu dezadala, arren, zure laguntzaz zientziaren izenean». (Hau eta hurrengo aipuak frantsetik euskarara guk itzuliak). Hitz horiei ez dago deus gaineratzerik.

Esan daiteke itzulpen hutsena baino aunitziki laguntza aberatsagoa eskaini ziola Etxenikek Bonaparteri honentzat hagitik salbagaitzak izan zitezkeen arazoak



Aldizkari honetan argitaratu zen Brunoren ohorezko bazkideztaren izendapena

gainditzen. Eta maiz agertzen dio gutuntan zein mailatan zituen haren lan eta iritziak: «Zure erantzunaren zain gelditzen natzaizu jakin dezadan herri guzti horien—hogeitik gora herri edo herrixkaz ari da— euskalduntasunaz zertara egon be-

har dudan». Izan ere, urratsez urrats, ikerketa-lankide bihurtu zela pentsa daiteke; gaur egun, ikerketa taldeko kide normalizat izango genukeena.

ETXENIKE, LANGILE ONA

Etxe oneko semea zen eta, agian, uste izango genuke ez zuela lanerako ohitura gehiegirik. Baina ez da hori Bonaparteren gutunek marrazten duten erretratua. Hirurogeita bateko eta, batez ere, biko gutunak oso jarraian idatziak daude, hila-betero eta hilabeteen bida ere bai noizbehinka, hurrengo urteetan zerbait bakan-tzen diren arren, ordurako lanik handiena egina baitzen. Eta gehienak egitekoz gainezka iristen ziren, eta ez ziren lan errazak izaten, alderantziz baizik. Baina Etxenikek beti betetzen zituen denak edo gehienak ahalik eta arinen. Horrek esan nahi du, batetik, bazuela astia, bidaia eta ordu asko eskatzen baitzituzten eginkizun gehienek. Bestetik, haren borondate handia ere erakusten zuen, eta esku artean zuten lanarekiko atxikimendua baino areago, guztiz engaiatua, konprometitua, aurkitzen zela egitasmoarekin.

Hainbeste pertsona ezezagunekin harremanetan jarri, haiek hain ekintza bitxira erakartzen saiatu, herriz herri galderak eta hizkuntzarekiko testigantzak biltzen ibili: horretan aritu direnek badakite zein lan eskerga eta, aldizka, gogaikarria ere izan ohi den hori eta zein pazientzia handia eskatzen duen, tartean porrotak eta hutsegiteak usuak izaten baitira. Horiek denak eta gehiago egin zituen Etxenikek.

Horregatik edozein harritzen dute, aurrena Bonaparte bera, Etxenikek ipintzen zuen gogoak eta hartzen zuen arreta handiak lanak oro ongi betetzen. Ia ez dago haren gutunik artez edo zeharka agertzen ez dionik bere esker ona. Ez dira formula huts, ohartzen baita Etxenikek baduela beste zereginik, baina, bide batez, garbi ageri zaio zenbat lan ematen dizkion eta zein zintzo burutzen dituen, baita bere eginbeharren kaltetan izanik ere.

BONAPARTEREKIN BIDAIDE


Bonapartek Euskal Herrira bost bidaiak egin zituen eta horietarik lautan Brunok lagundu zuen era ezberdinetara. Lehenen-



Gaur egun, Datuegaraia lekaimeen kongregazio batena da

goan, elkar ezagutu eta handik hilabetera, Luis Luziano Brunoren etxera joan zen, Elizondoko Datuegaraira. Bi egun eman zituen han, elkarren artean Nafarroako euskara ongi aztertzekeo estrategia antolatzen: zein azpieuskalkitan bereiz zitekeen lurraldea eta horien arabera zein laguntzaile bilatu, euskaraz idatzitako materialak bildu, zer-nolako bidaiak egin; dena zorrotasun handiz eratu eta lotzen jardun omen ziren, printzeak ohi zuen bezala.

Bigarren bidaiak, 1857an egina, Nafarroako hizkerak aztertzekeo hagitz oparoa gertatu zitzaion Bonaparteri. Lehenbizi Baionan bildu zen Etxenike eta beste lagun-



Iruñean bizi izan zituen, ziurrenez, azken urteak

tzaileekin, bidaia ongi antolatzeko eta ortografia finkatzeko tokian tokiko ahoskera ongi jaso eta islatua izan zedin nahiz biltzen ziren datuetan nahiz itzulpenetan. Bidaia Brunoren laguntzaz hasi zuen urriaren 17an Beran, eta, Bidasoa ibaian goiti, herriz herri jarraitu zuten bizpahiru egunetan Elizondoraino, hemen Brunoren etxean pasatu zutelarik gaua. Hurrengo




Bruno eta Axular, biak, Leorlazko auzokideak ziren

egunean jokabide bera Iruñerako bideko herrietan, afaritarako hiriburura iritsi zirelarik. Iruñean eguna igaro ondoren, Gasteizerako bidean ere gauza bera egin zuten Sakanan barna eta Nafarroako mugak utzi eta Aguraineraino, handik Gasteizera iritsi arte.

Hirugarren bidaia 1866. urtean egin zuen urtarriletik martxora bitartean. Bidaia hasi aurretik, ongi antolatzeko eta ordurako egina zuen euskararen mapa aztertzeko, bi eguneko batzarra egin zuen printzeak Angelun Etxenike, Intxauspe, Duvoisin,

Uriarte eta Otaegirekin. Lan garrantzitsuena eta daturik emankorrenak Nafarroan bildu zituen, han bi hilabete eman baitzituen Etxenike eta Otaegi zituelarik bidaide eta laguntzaile. Egun euskara erabat galdurik, edo ia, dagoen tokietan urrearen balioa duten datuak bildu zituzten: hegoaldeko goi-nafarrera, aezkera, zaraitzuera eta erronkaria euskalki eta hizkeretakoak.

Printzea hurrengo bidaian ere elkartu zen Brunorekin, 1867. urteko udaberrian. Bidaia laburra izan zen eta Iparraldeko herrietan ibili zen. Hala ere, martxoaren 20an Zugarramurdin bat egin zutela badakigu. Ziurrenez, hau izango zen azken aldia elkar ikusi zutena. Izan ere, printzearen azken bidaian, 1869an, Espainiako egoera politikoagatik ez zuen hegoaldera etortzerik izan eta Donibane Lohizunera deitu zituen laguntzaileak. Etxenikek, egon zen hilabete t'erdian, ezin izan zion Luis Luzianok egindako deiari erantzun. Ez dakigu zein izango zen ezintasun horren arrazoia, baina handia behar zuen izan, prest egoten baitzen beti lagunarekin elkartzeko. Bonapartek ere pena handia



Brunok egin zituen itzulpenetako bat, *Jonasen Profezia*, Bonapartek berak argitaratua

hartu zuen eta horrela adierazi zion Donibane Lohizunetik idatzi zion gutunean.

ITZULPENAK

Luis Luziano Bonapartek garaiko metodologia erabili zuen euskararen hizkerak aztertu, bereizi eta zedarritzeko. Bibliako testurik ezagunenak, doktrina eta otoitz arruntenak euskaratzea eskatzen zuen to-



Nafarroako Errege Artxiboan daude
Bonapartek Brunori idatzitako gutunak

kian tokiko hizkerara, hango hizkuntza mintzatura ahalik eta zintzoen lotuz. Ikusi dugu Etxenikeri ezagutu orduko eskatu ziola *San Mateoren Ebanjelioa* Elizondoko euskarara itzultzea, Bonaparteren aburuz Elizondon egiten baitzen Baztan bailarako euskara eredugarriena.

Etxenike gure artean ezaguna bada, Bonaparteri egin zizkion itzulpenengatik da gehienbat. Ebanjelioaren ondoren *Ruthen liburu*arena eskatu zion, eta asko gustatu zitzaionez lan hau, *Salomonen Kantak*, *Jonasen Profesia* eta *Apokalipsia* ere euskaratu behar izan zituen, beste

inork ez zituelako Etxenikek berak bezain ongi egingo; printzearen esanetan, «batez ere orain, ongi dakizunean zer nahi dudan nik».

Horiez gain, Elizondoko hizkerara dotrina bat ere itzuli zion, eta beste zenbait tokitakoak ere berak birbegiratu eta egokitu zituen Bonapartek eskatzen zituen grafia arauetara. Hala nola, Berako hizkerara, Ultzamakora, eta berak kopiatu eta egokitu zituen Urdiaingo eta Etxarri-Aranatzeko doktrinak eta aezkeraz idatzia zegoen Garraldako doktrina ere.

Ikaragarri gustura hartzen zituen Bonapartek haren itzulpenak. Izan ere, benetan onak dira berez, eta bereziki Bonaparteren dialektologia ikerketarako. Etxenikek ongi ezagutzen zituen Elizondoko eta Urdazubiko hizkerak, eta lapurtera eta behe-nafarrera ere bai, horiek denak elkarren artean ongi bereizteko bezala.


Bestalde, Etxenikek bilatu zituen tokian tokiko hizkeretara testuen itzultzaile aunitz. Bilatu eta ongi prestatu Bonaparteren irizpide zehatz eta zorrotzetara hertsiki lot zitezen itzulpengintzan. Ez zen aisa

aurkitzen lan horretarako gai eta egiteko prest zenik, hizkuntza eta ikerketa arazoen aurrean jendea uzkurtu egiten baita. Baina printzeak bazuen konfiantza Etxenikeren gaitasun eta dohainetan lan irriskor hori betetzeko: «Zure iritzira uzten dut hori, oso ongi asmatu baituzu kasu guztietan, eta ongi irabazia duzu nire erabateko onepena jasotzeko eskubidea».

GUTUNAK

Bruno Etxenike eta Luis Luziano Bonaparteren artean idatzi ziren gutunak ugariak izan ziren. Zoritzarrez, Brunok printzeari idatzi zizkionak ez ditugu ezagutzen. Printzeak bere eskuz Brunori idatzitakoak, aldiz, agian denak ez badi-ra ere, ezagutzen ditugu. Gordetzen diren gutunak, 41 denera, Brunoren alargunaren izenean bere semeak, Zalditeria Komandante zenak, saldu zizkion Nafarroako Aldundiari, orduko artxibozain nagusia zen Carlos de Maritxalar bitartekari izan zelarik. Gutunak gordetzen diren garai hartako sobrea idatzia dagoenaren arabera, 1915. urtean egin zen erosketa eta 2.000 pezeta ordaindu zituen

Aldundiak. Egun, Nafarroako Errege Artxiboan daude. Ez zituzten, ordea, euren gutun-azalekin saldu. Hauekin etxekoak gelditu omen ziren seiluek eduki zezaketen balioa zela eta. Espainiako gerra denboran galdu egin ziren, bai gutun-azalak bai Bonapartek egindako zenbait opari.



Julio Urquijok editatu zituen Bonapartek Brunori idatzitako gutunak



Oroz gain adiskide

RIEV aldizkarian argitaratu ziren
Brunori idatzitako gutunak

LANKIDE BEZAIN LAGUN

Luis Luziano eta Brunoren arteko harremanak hizkuntzarekiko interesa gainditu egiten zuen. Ezagutzen diren testigantzek erakusten dute asko estimatzen zutela elkar eta lagun ere bazirela. Bonaparteren izaerak ez dirudi bere egitekoetatik asko aldentzen zen gizasemea zenik, ez eta denbora galtzeko izaten zuenik ere, are gutxiago Euskal Herrira ekartzen zuen ikerketa lan gaitzerako bidaietan. Hala ere, badakigu biak ehiztariak zirela eta arrantza zaleak ere bai, eta hartzen zituztela tarteak inoiz edo behin euren zaletasunei emateko.

Agian, aurreneko elkarren arteko inpresio onean euren zaletasun horiek ere izango

zuten eraginik. Ezin daiteke uka esanguratsua ez denik gordetzen diren Bonaparteren lehen gutunean, ezagutu eta gutxira idatzian, lehenbiziko hitzak honako hauek izatea: «Etxenike jaun estimatua: Nik nire mandatua betetzen dut amuak zuri postaz bidaliz. Jakin nahi nuke ea horiek diren zuk nahi dituzunak». Badu bere grazia.

Etxenikek, bestalde, ez zion inolako ordainketarik onartzen, ezta ezinbesteko gastuetarako ere. Gutunetan garbi ageri da hori, Bonaparte usatua baitzen diruz pagatzera gisa horretako lanak, eta Euskal Herrian ere ordaintzen zituen langileak eskatzen edo onartzen bazuen. Etxenikerekin, berriz, egonezin bizia zuen, bazekielako



Elizondoko Udalak egin izan du ekitaldiren bat Brunoren oroipenez

gastu ugari eragiten zizkiola, eta ez txikiak azken buruan. Adierazgarriak dira hitz hauek: «Etxenike jaun hagitz estimatua, egiaz onegia zara nirekin, eta biziki nahigabetua nago ezin dizkizudalako, Frantzia eta Ingalaterrako letra-jende eta itzultzaileekin ohi dudan bezala, zure arreta eta zure lanak ordaindu. Nik gehiegi zor dizut eta zuk ez duzu deus nahi».

Dena den, egiten zizkion opariak eta, aukerarik izanez gero, baita mesedeak ere. Ez da erraz jakiten zein opari egiten zizkion. Bonaparte pertsona adeitsua zen eta gizabidetasun handikoa. Ez zuen bere

gutunetan askorik argitzen zer bidaltzen zion. Baziren dirurik hartu nahi ez zuten itzultzaileak, eta horiei egiten zizkien aipatzen dira, Etxenike izaten baitzen bi-tartekoa. Esan ohi da eskopeta bikain bat oparitu ziola, baita bi pistola ere. Bere ondorengoek gordetzen zituzten bi kandela-bro eder. Baita, geroago, Mariano Izeta-ren aitak konpondu zuen urrezko erloju bat ere, eskaintza grabatuarekin. Baina oparien kalitateari buruzkorik ez zuen sekula deus aipatzen, bere giza mailari zegokion araura: «bidaltzen dizut nire eskeronaren adierazgarri laño bat», «pakete bat» eta horrelako esaldiak zerabiltzan.

Beretzat ez bazuen ezer nahi ere, emaztearentzat edo umeentzat eska ziezaiola zerbait erregutzen dio: «Ez ahantz Parisen badela mota guztietariko ezin konta ahal asmakizun. Ez zaitez nirekin itxurak gordetzen ibili, Etxenike jauna»; «Ziur izan zaitez ez lidakeela ezerk plazer handiagorik emango etengabe ni kontentatzeko dituzun atentzioei jartzen diedan prezioa zuri aditzera emateak baino».

EUSKAL MUNDUAN SARTUA

Euskal munduan izen handia eta itzala zuela ez dago dudarik. Iruñean 1877an sortu zen Nafarroako Euskarazko Elkargoak ohorezko bazkide izendatu zuen lehenengo hogeitaz ospetsuren artean, *Revista Euskarak*, 1878an argitaratu zuen lehen alean, biltzen duen bezala. Jende ezagunak osatzen du zerrenda hori, baina merezi du guretzat ezagunagoak izan daitezkeen baina batzuk aipa ditzagun, horrela ikusten baita zein mailatan zebilen Bruno Etxenike: Bonaparte bera, Moraza, Mañé y Flaquer, Ortiz de Zárate, Sagarminaga, Trueba, Delmas, Iparragirre, Manterola, Carriquiri, Navarro Villoslada, Antoine d'Abbadie.



Nafarroako Euskarazko Elkargoak ohorezko bazkide izendatu zuen

Iruñeko Udalak, 1882an, aipaturiko Elkargoaren babesean, hagitz ospe handiko literatura lehiaketa antolatu zuen. Bi lerro zituen, euskarazkoa eta gaztelaniazkoa, eta sariak bereziki onak ziren. Sari banaketarako programa bikain bat antolatu zen, ekintzetan Sarasatek eta Gayarrek parte hartu behar zutelarik. Epai-mahaia goi-mailako kideekin eratu zen, Nikasio Landa, Rafael Gaztelu, Jose Askuntze,



Bruno izan zen Elizondon ospatu ziren
 Lore Jokoen antolatzaile nagusia

Arturo Kanpion, Damaso Legaz eta Bruno Etxenike jaunek osatua baitzen.

Antoine d'Abbadiek Iparraldean bultzatutako Lore-jokoen eredu ere zabaldu nahi izan zuen Elkargoak Nafarroan. Zenbaterainoko eragina izango zuen Brunok horretan ez dakigun arren, handia izango zen, bera baitzen d'Abbadie hobekien ezagutzen zuena. Eta, hain zuzen, Elizondon antolatu ziren lehenbizikoz Nafarroan Euskal Bestak eta, horien barnean, Lore-Jokoak, zeinetan Bruno epai-



Heriotzaren hil eskela

mahaikidea izan zen. Beste hainbat epai-mahaietan ere egon zen, irakasle euskaldunak hautatzekoetan besteak beste.

NOLAKOA ZEN BRUNO ETXENIKE?

Errespetuzko jauna dudarik gabe. Jakintsua eta lagunen lagun. Bere garaiko testigantza guztiek horrela adierazten dute, baita ondokoen artean utzi zuen oihartzunak ere. Julio Altadillek, esaterako, beste gauzen artean: euskaltzale gorenetakoa, aparteko jakinduria dohainez hornituriko gizona zela zioen. Iritsi zaigun argazki bakarrak ere duintasun handiko gizakumearen irudia islatzen du. Umore oneko pertsona ere omen zen, garaikideen arteko



Iruñeko kanposantuko hilobi honetan ehortzia izan zen zenbait pasadizotan agertzen denez. Haren senitarteko zen Odon Apraizek kontatzen zuen nola behin, elkarrekin zebiltzala Bonaparte eta Bruno, lapur bat atera zitzaizela bidera. Baina arin lekutu zuen Brunok pistola aterata. Ez zen, ordea, pistola, eta lapurra ez ezik, printzea bera ere ederki engainatu zuen, pistola beharrez erretzeko erabiltzen zuen pipa atera baitzion. Ikaraldia igaro ondoren, hamaika irri egin zuten elkarrekin eta lagunekin horren kontura.

HERIOTZA

Baliteke azken urteak Iruñean pasatu izatea. Heriotzako ordua Iruñean etorri zi-



Elizondora aldatu omen zuten zenbait urtetara

tzaion eta, dokumentuen arabera, Valentzia etorbideko 13. zenbakiko etxean hil zen, 1893ko martxoaren 14an, gaueko 12etan. Hirurogeita hamalau urte zituen eta garun-isuri batek eraman zuen. Emaztea, seme eta errainak eta bilobak izango zituen laguntzen heriotzakoan. Martxoaren 16an, goizeko 11etan izan ziren San Nikolas elizan hileta-elizkizunak. Egun horretan bertan Iruñeko kanposantuan hilobiratu zuten senitarteko Pedro Carriquiri panteoian. Baina, Aita Perez Goienak dioenez, geroago Elizondora eramana izan ziren haren gorpuzkiak. Ziurrenez hori egiaztatzen du handik zenbait urtetara Elizondon egin zen hilerrian Etxenike eta familia izenarekin dagoen lehenetariko panteoi batek.

Egileak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzagaririk, eskerrak eman nahi dizkiete:

- Nafarroako Errege Artxibo Nagusiari

Zuzendaritza: Jerardo Elortza
Argitaraldia: 1.a, 2011ko abenduan
Ale-kopurua: 2.300
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria: Rosa Miren Pagola
Fotokonposizioa: RGM, S.A. • Pol. Igeltzera pab. A1 bis - 48610 Urduliz-Bizkaia
Inprimaketa: RGM, S.A. • Pol. Igeltzera pab. A1 bis - 48610 Urduliz-Bizkaia
ISBN: 978-84-457-3166-6 (Lan osoarena)
978-84-457-3169-7
L.G.: BI 2279-2011

BIDOGUILLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística